

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Enpresen ardura Euskal Herriko atzerriko irudian

Kapitalismoaren hedapena lagundu duen ideologia ideia oso sinple batzuetan laburbiltzen da. Funtsean, jendeari negozioak egiteko askatasuna eman behar zaio, eta beren artean lehiatzen utzi. Konkurrentziaren bidez finkatuko da zein merkantzia diren onenak eta horien ekoizleek egingo dute aurrera. Horrela, ekonomia eraginkorragoa izango da, eta gizarteak, oro har, onura aterako dio. Praktikan, benetan gertatu denak antz handiagoa du Karl Marxek Kapitalaren 24. kapituluaren deskribatu zuenarekin, jatorrizko metaketa deiturikoarekin. Kontua da ez zela hasieran bakarrik gertatu, eta gaur egun kapitalismoaren oinarriak biolentzia izaten jarraitzen duela. Merkatuarekin eta lehiarekin zerikusirik ez zuen erantzak, Martin Scorsesek maisuki "Los asesinos de la luna" bere azken filmean erakusten duenak.

Harrapaketa, legezko jabe baliabideak usurpatzea, legearen itxurapeko estortsioa, gezurra eta homizidioa indarrean dauden tresnak dira oraindik. Politika horrek berak urteak daramatza Israelgo Estatuaren eskuetan, Palestinan aplikatzen, isiltasun orokorraren babespean. Palestinako erresistentziaren azken ekintzak urteak daramatzen apartheid, garbiketa etniko eta harrapaketa politiken basakeria guztia agerian utzi du: Israel ez da ez zuzenbidezko estatua, ezta demokratikoa ere, Estatu kolonial bat besterik ez da. Israelgo Estatu sionistaren sadismo-jarduerak hiru hilabete daramatza nazioarteko komunitatearen izaera eragingabearen aurrean. Zorionez, Hegoafrikak inizatiba hartu du eta Israel nazioarteko auzitegi baten aurrera eramateko helegitea aurkeztu du.

Mendeetako munduko kolonizazioaren dinamika horretan, euskaldunok, salbuespen ohoretsuak salbu, desjabetzaileen aldean egon gara eta, beraz, ez dauka-

gu zer harrotu askorik. Egun Euskal Herrian jendea Palestinaren alde mobilizatzen eta elkartasuna adierazten den bitartean, Erkoreka eta bere mendekoak Palestinako banderen atzetik ibiltzen dira, norbait haserretu daitekeelako. Are larriagoa iruditzen zait CAF bezalako enpresa batek Israelekin negozioak egitea erabaki izana, protestak eta ohartarazpenak gorabehera, eta oraindik horri buruz ezer esan edo egin ez izana. Enpresetako lengoaiaren modan jarri da *stakeholders* kontzeptua, hau da, alderdi interesatuak. Ez dira akziodunak edo langileak bakarrik, hornitzaileak, instituzioak eta gizartearen badira. Azken finean, enpresek ordezkatzeko duten herrialdearen irudi bat ematen dute atzerrian, gustatu ala ez. Irudi bat zabal-tzeaz gain, askotan erakunde bidaiez baliatzen dira

Mendeetako munduko kolonizazioaren dinamika horretan, euskaldunok, salbuespen ohoretsuak salbu, desjabetzaileen aldean egon gara eta, beraz, ez daukagu zer harrotu askorik

«merkatu berriak irekitzeko», hau da, herrialdearen ordezkariak instituzionala erabiltzen dute beren intereserako. Bada, CAFek Israelgo agintariekin sinatu zuen kontratuak, bere irudiari kalte egiteaz gain, Euskal Herriak kanpoan duen irudiari ere kalte egiten dio. CAFeko norbaitek inoiz sinatu behar ez zen kontratu baten erantzukizuna bere gain hartu beharko luke. Eta CAFentzat balio duenak, munduan zehar negozioak egiten dituzten herrialde honetako enpresa guztientzat ere balio du. Nahikoa da *stakeholder*-ei buruz teorizatzea, lehendakariaren itzalean munduan zehar ibiltzea, zergak ez ordaintzea eta, gainera, herri honetako irudia zikintzea. •